Hernaniko Udala

Nik Patxi Lapatza Gortazar Bengoa, Hernaniko UdalEKO idazkariak honako hau

ZIURTATZEN DUT

HERNANIKO UDALAK 2025EKO URRIAREN 28AN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

ALKATEA:
Xabier Lertxundi Asteasuinzarra

ALKATEORDEAK:
Itsaso Lekuona Legorburu
Patxi Ibarguren Etxeberria
Ainara Atorrasagasti Urizar
Aitor Lukas Solano

ZINEGOTZIAK:
Axier Mingo Arruabarrena
Amaia Miner Canflanca
Aitor Huizi Izagirre
Urko Lazkoz Fernandes
Oier Agirresarobe Lizaso
Kistiñe Rodríguez Polaina
Andoni Amonarraiz Gómez
José Antonio Cuesta Solé
Blanca Alberro Aranzasti
Miryam Vázquez Vecino
Mikel Gurutzeaga Zubillaga
Ismael Ganchegui Gonzalez
Ricardo Crespo Rubio
Jaione Aristregi Cao
Lurdes López Gorrotxategi

IDAZKARIA:
Patxi Lapatza-Gortazar Bengoa

KONTU-HARTZAILEA:
Aitor Sarasola Salaberria

2025eko urriak 28an osoko bilkura egin da udaletxean, arratsaldeko 18:00etan, aurrez deialdia egina zegoelarik. Bilera Xabier Lertxundi Asteasuinzarra alkate jaunaren lehendakaritzapean egin da, eta bertan izan gara alboan aipatutako zinegotziak eta neu, Patxi Lapatza-Gortazar Bengoa idazkaria.

Gai zerrenda:

1. LAN JAZARPENAREN AURKAKO PROTOKOLOA ONARTZEKO PUNTUA: EGUNEKO AZTERGAIAN SARTZEKO PROPOSAMENA BERRESTEA, ETA PROTOKOLOA BERARI ONESPENA EMATEA.

2. 2025-09-30EKO OSOKO BILKURAREN 8-2025 AKTA ONARTZEA.

3. DEKRETUEN BERRI EMATEA 2025DEKR2281 DEKRETUTIK 2025DEKR2543 DEKRETURA.

4. BERRI EMATEA. KONTU-HARTZAILEAREN TXOSTENA: URTEKO BIGARREN LAUHILEKOARI DAGOKION FINANTZA ETA AURREKONTUEN ALORREKO INFORMAZIOA.

5. ZERBITZUAK ESKAINI EDO UDAL JARDUERAK BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOEN ORDENANTZAREN ALDAKETA.

6. DONOSTIALDEKO ERREGIMEN BEREZIKO EREMUAN % 2,4KO IGOERA APLIKATZEA, AUTO-TAXI ZERBITZUETAKO KONTZEPTU GUZTIETAN.

7. HERNANIKO PARKE, LORATEGI ETA BERDEGUNEEN MANTENTZE JASANGARRIRAKO, KONTSERBAZIOKO ETA HOBEKUNTZA ZERBITZUA KONTRATATZEKO LIZITAZIOA ABIAN JARTZEA.

8. GUREAK BERDEAK SLUREN ERREKLAMAZIOARI ERANTZUNA HERNANIKO BERDEGUNE, PARKE, ZUHAITZ, LORATEGI ETA KONPOST-GUNEEN MANTENTZE-ZERBITZUARI DAGOKIONEZ.

9. HIRIGINTZA ANTOLAMENDUAREN OSAGARRIA DEN ORDENANTZAREN ALDAKETA. HASIERAKO ONARPENA.

10. HERNANIKO UDALAREN ETA AÑARBEKO UREN MANKOMUNITATEAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENAREN BIGARREN GEHIGARRIA ONARTZEA.

11. HERNANIKO UDALAK HABEREKIN SINATU BEHARREKO HITZARMEN BERRIA.

12. EAJ-PNV ETA PSE-EE (PSOE)REN UDAL TALDE-POLITIKOEN MOZIOA/ADIERAZPENA: ELKARBIZITZAREN ALDE, ETA ERTZAINTZA ETA UDALTZAINGOEN DEFENTSAN.

13. EH BILDU UDAL-TALDE POLITIKOAREN MOZIOA: DEMOKRAZIAREN ALDE, ETA POLIZIA-EREDUA BERRIKUSTEAREN ALDEKO MOZIOA.

14. ESKARIAK ETA GALDERAK.

Alkatea.- Arratsalde on. Seiak oraintxe jo berriak dira eta urriko osoko bilkurari emango diogu hasiera.

Kasu honetan ohikoa ez den hasiera batekin hasi behar dugu. Aktarekin hasi behar badugu ere, badago urgentziaz gai-zerrendan sartu dugun gai bat, aurretik Antolakuntza Batzordean diktaminatu ez duguna eta da lan-jazarpenaren aurkako protokoloa onartzea. Administrazio publikoan eta udalek barrura begirako arrisku psikosozialei aurre egiteko lan-jazarpen protokolo bat eduki behar dugu. Guk 2007tik bagenuen bat, baina bagenuen errekerimendu bat hori eguneratzeko eta berritzeko. Lan hori egin dugu, Segurtasun eta Osasun Batzordean landu dugu langileen ordezkaritzarekin batera, adostu ere egin genuen pasa den astean, baina akats bat izan genuen. Pentsatzen genuen ez genuela Antolakuntza Batzordean diktaminatu behar eta Osasun eta Segurtasun Mahaitik zuzenean plenora etor zitekeela, baina ondoren juridikoek esan digute ezetz, diktaminatu beharra badagoela. Beraz, plenora ekartzeko modua urgentziaz gai-zerrendan sartzea da.

Ikusten genuen protokoloa osatuta eta adostuta dagoenez, ez zeukala zentzurik hilabete bat itxaroteak eta azaroko plenora arte uzteak. Horregatik gai-zerrendan sartu genuen eta dokumentazioa ere bidali genuen gai-zerrendarekin batera. Honekin, hortaz, formalismoak jarraituz, egin beharko genuke lehenengo urgentziaz sartzea onartu, eta gero gaia tratatu.

Honen inguruan zerbait aipatzeko?

Jaione Aristregi: Kaixo, arratsalde on.

Gure taldeak ez du ulertzen puntu hau gaurko osoko bilkuran sartzeko premia. Ez zaigu bidezkoa iruditzen udal honetako langile batzuentzat oso garrantzitsua izan daitekeen protokolo bat lantzeko hain denbora gutxi eman izana. Denbora egon da sindikatuetako ordezkariekin eta zerbitzu juridikoekin hitz egiteko, baina ez gure botoa eman behar dugun pertsonekin, dokumentu hau onar dadin. Hala ere, osoko bilkurara etorri denez, ados gaude; nahiz eta gaur sartu.

Ricardo Crespo: Kaixo, arratsalde on guztioi.

Gu pixka bat ildo beretik. Ez dugu presa ulertzen. Horrek ez du esan nahi kontra bozkatuko dugunik. Logikoki, aldeko botoa emango dugu, oso tresna beharrezkoa dela uste dugulako. Baina ulertzen dut presa ez dela horrelakoetarako. Larrialdia benetako larria dagoenerako dela ulertzen dugu, onartuta egotea behar dugunean eta denborarik ez daukagunean... Ezohiko osoko bilkura ere dei liteke, beharrezkoa balitz. Orduan, presa ez dugu ulertzen. Baina aldeko botoa emango dugu.

Mikel Gurutzeaga: Zentzu berean gu ere. Oposizioarekin ez duzue kontatu kasu honetan, baina gaiaren garrantzia ikusita eta bi batzordeek onartu dutela jakinda, guk ere onartutzat ematen dugu plenoan sartzea eta gero bozkatzea.

Alkatea: Eskerrik asko denei.

Esan bezala, Segurtasun eta Osasun Batzordean Udalak eta langileek daukagun ordezkaritza horri jarraituz aho-batez onartu da. Inongo gorabeherarik izan gabe. Ulertzen dut esaten duzuena, baina bazen kontu praktiko bategatik ere. Zentzurik ez zeukan jada behin osatuta, adostuta edukita, hilabete bat indarrean jarri gabe edukitzea. Eginda dagoenez, lehenbailehen indarrean jartzea. Horregatik.

Orduan, lehenengo eta behin urgentziaz gai-zerrendan sartzea bozkatuko genuke: Lan-jazarpenen aurkako protokoloa onartzeko gaia urgentziaz plenoan sartzearen aldeko botoak? EH Bildu, EAJ eta Elkarrekin-Podemos udal taldeak. Aurkako botoak? Ez dago. Abstentzioak? Euskal Sozialistak udal taldearenak.

Bozketaren emaitza

	Kopurua	Izen-abizenak
ALDE	19	1. Xabier Lertxundi Asteasuinzarra.

		2. Itsaso Lekuona Legorburu. 3. Patxi Ibarguren Etxeberria. 4. Ainara Atorrasagasti Urizar. 5. Aitor Lukas Solano. 6. Asier Mingo Arruabarrena. 7. Amaia Miner Canflanca. 8. Aitor Huizi Izagirre. 9. Urko Lazkoz Fernandes. 10. Oier Agirresarobe Lizaso. 11. Miren Kistiñe Rodriguez Polaina. 12. Andoni Amonarraiz Gómez. 13. José Antonio Cuesta Solé. 14. Blanca Alberro Aranzasti. 15. Miryam Vazquez Vecino. 16. Mikel Gurutzeaga Zubillaga. 17. Ismael Ganchegui Gonzalez. 18. Jaione Aristregui Cao. 19. Lurdes López Gorrotxategi.
KONTRA		
ABSTENTZIOAK	2	1. Ricardo Crespo Rubio. 2. María Jesús Ruiz Ochoa

1. LAN JAZARPENAREN AURKAKO PROTOKOLOA ONARTZEKO PUNTUA: EGUNEKO AZTERGAIAN SARTZEKO PROPOSAMENA BERRESTEA, ETA PROTOKOLOA BERARI ONESPENA EMATEA.

Alkatea; Honekin bai, hortaz, esan dugun moduan azalpen gehiagoren beharrik uste dut ez dagoela. Agian protokoloaren inguruan galderaren bat edo baldin badago, zabalduko dugu tartea. Lanpostu batek baditu arrisku desberdinak eta askotan arrisku fisikoetan jartzen dugu begia. Baina lanpostuetan arrisku psiko-sozialak ere badaude, eta kasu honetan, Udalari dagokio bere langileak arrisku horien aurrean babestea. Orduan, lan-jazarpen protokoloa arrisku psiko-sozialen diagnostiko bat egin eta gero datorrena da. Jazarpen-mota desberdinak egon daitezke postu desberdinetan; barrura zein kanpora begira. Eta horiek guztiak genero ikuspegi batetik, Berdintasun Sailarekin eta Lan-Prebentzioko teknikariarekin batera ere, horiek guztiak jaso eta landu dira protokolo honetan. Jazarpen-mota desberdinak egon daitezkeenak. Bi helbururekin: batetik, neurriak hartzea prebentzio bat izateko eta puntu honetara eta jazarpen-mailen puntuetara ez iristeko; baina momenturen batean emango balitz jazarpen egoeraren bat, nola jardun beharko genukeen protokolizatu, sistematizatu.

Jaione Aristregi: Protokoloa irakurri ondoren, protokolo hau aurrekoa modernizatzeko da. Baina erreferentzia berriago batzuen falta sumatzen dugu. Ziber-jazarpenari edo (...) -ari buruz ia ez dago ezer. Hala ere, "emakumea izan behar zuen" edo "zoaz garbitzera" bezalako esaldiak gaindituta daudela uste dugu zorionez. Bestalde, jazarpenaren biktima sentitzen diren pertsonekin egindako elkarrizketetan jarraibide gisa ematen diren gomendioetako batzuk ere deigarriak dira. Hainbat aholku: elkarrizketan zehar mugikorra ez hartzea, hitz egiten duen pertsona ez etetea, edo ez epaitzea. Badirudi protokoloa egiterako garaian konfiantza gutxi dagoela elkarrizketa horiek zuzenduko dituen pertsonarengan.

10. artikuluan honako hau dio: "ofizioz hasi ahal izango da ikertzen, jokabide susmagarri bat atzematen bada, adibidez, depresioagatik edo antsietateagatik segidan baja gehiegi hartzen baditu, itxuraz lan-jatorrikoak". Udalak eta Lan Osasuneko Batzordeak ez dute pertsonen bajen zergatia jakiteko eskubiderik. Protokolo horren arabera, bajak iker ditzakete eta informazio hori erabil dezakete jarduteko. Hori legez kanpokoa da eta, gainera, paternalismo hutsa.

Bestalde, uste dugu ezinbestekoa dela protokoloa eguneratzea eta betetzea, baina ezin dugu onartu idatziz jasota geratzea baja medikoen zergatia ikertu ahal izatea. Dokumentu horrek berak, aurrekarietan, dio edozein enplegatu publikok duela bere intimitatea errespetatzeko eskubidea. Eta paragrafo horrek, zehazki, eskubide hori urratzen du, datuak babesteko legeaz ez hitz egiteagatik.

Azkenik, ikerketa edo jarraipen batzordeari dagokionez, uste dugu ez duela balio udaleko langileak izatea, baizik eta lan-gatazketan ondo prestatutako pertsonak izan behar direla. Edozein motatakoak direla ere. Eta, batez ere, alderdien lan-harremanetan erabat inpartzialak izatea.

Alkatea: Ados. Pare bat kontu aipatzeagatik. Ados ziber-akosoaren kontuarenaren kasuan hor adibide batzuk aipatzen dira, horrelakorik gertatuko balitz, noski, izango litzateke protokolo hau martxan jartzeko arrazoia. Adibide guztiak jartzea ezinezkoa delako, adibide horietan ez azaltzeak ez du esan nahi kasu horietan ekingo ez litzatekeenik. Agian egia da beharko lukeela esplizituko agertzea. Baina esan nahi dut, ez duela esan nahi kontutan hartu ez denik.

Ados bajen kasuan esaten duzunarekin, Udalak edo edozein enpresak, ez du zertan jakin bajaren arrazoia zein den. Baina batzuetan jakin dezake, langileak adierazi dezake eta gertatu daiteke. Hemen horrelako kasuez ari gara. Jazarpena ematen den egoera batzuetan ez delako adierazten jazarpena dagoenik. Baina sintoma bat izan daiteke gaixotasun bajan asko ematea eta pertsona horrek adieraztea zergatik izan den edo ze gaixotasun baja mota den. Ez istripu batengatik, baizik eta agian osasun mentalagatik. Adibide bat jartzen ari naiz. Honek ez du esan nahi baja bakoitza aztertzen hasiko garenik, ezta gutxiago ere. Legeak ez duelako uzten. Ez doa horretara.

Eta, jarraipen batzorde horretan Udalari lotuta gauden pertsonek, arduradun politiko zein teknikariek hartuko lukete parte; baina beti dago, kasu honetan, kanpo aholkularitza bat ere, hau dena diseinatzen eta planteatzen dutena eta prebentzio teknikariak direnak. Beraiek aholkatzen dute eta ze bide jarraitu behar dugun ere bai. Eta lanketa guztia beraiekin egin dugu. Horrekin, nolabait ere, eragozteko interes gurutzatuak egon daitezkeenak edo konfliktoan sartu daitezkeen interesak.

Mikel Gurutzeaga: Formari lotutako kontu bat aipatu nahi dut. Faltan bota dugu agian dokumentu honetan, aurrekoarekin konparatuz, aldeak non dauden pixka bat azkarrago aztertzeko. Baina aztertuta ere ikusi dugu, adibidez, bigarren orrian edo paragrafo batean jartzen duela parentesi artean berria. Orduan, ez dakigu zer esan nahi duen, puntu hori bakarrik den berria dena edo hori kendu beharrekoa dela. Berria horrekin mantentzeak behintzat ez dauka zentzu handirik gure ustez. Ez dakit, forma kontu bat da.

Agian beste gauza berri batzuk daude eta ez du jartzen parentesi artean hau berria da. Baina egia da, baita ere, faltan bota dugula gutxienez azpimarratuta jasotzea egindako aldaketa nagusiak.

Alkatea: Ados, jasota.

Honekin, hortaz, protokoloa onartzera pasako gara edo, behintzat, bozkatzera. Lan jazarpenaren aurkako protokoloa onartzearen aldeko botoak? EH Bildu, Euskal Sozialistak eta EAJ taldeko bost zinegotzi. Kontrako botorik ez dago. Eta, abstentzioak? Elkarrekin-Podemos eta EAJ udal taldeko zinegotzi bat. Honekin, onartuta gelditzen da protokoloa.

Bozketaren emaitza

	Kopurua	Izen-abizenak
ALDE	18	1. Xabier Lertxundi Asteasuinzarra. 2. Itsaso Lekuona Legorburu. 3. Patxi Ibarguren Etxeberria. 4. Ainara Atorrasagasti Urizar. 5. Aitor Lukas Solano. 6. Asier Mingo Arruabarrena. 7. Amaia Miner Canflanca. 8. Aitor Huizi Izagirre. 9. Urko Lazkoz Fernandes. 10. Oier Agirresarobe Lizaso. 11. Miren Kistiñe Rodriguez Polaina. 12. Andoni Amonarraiz Gómez. 13. José Antonio Cuesta Solé. 14. Miryam Vazquez Vecino. 15. Mikel Gurutzeaga Zubillaga. 16. Ismael Ganchegui Gonzalez. 17. Ricardo Crespo Rubio. 18. María Jesús Ruiz Ochoa
KONTRA		

ABSTENTZIOAK	*3*	*1. Blanca Alberro Aranzasti.* *2. Jaione Aristregui Cao.* *3. Lurdes López Gorrotxategi.*

UDALBATZAK ONARTUTAKO EBAZPENA

LEHENENGOA.- *ONARTZEA "Hernaniko Udalean jazarpen psikosozialen eta bestelako arrisku psikosozialen alorreko gatazkak aurreikusi eta irtenbidea emateko jarduera protokoloa".*

BIGARRENA.- *Indarrik gabe uztea 2007. urtean onartutako Hernaniko Udalean eta bere erakunde autonomoetan jazarpen psikosozialen eta bestelako arrisku psikosozialen alorreko gatazkak aurreikusi eta irtenbidea emateko jarduera protokoloa.*

HIRUGARRENA.- *Ebazpen honen berri ematea udal langile guztiei, Hernaniko Udaleko barne zerbitzarian (K/ karpetan) argitaratzea.*

2. 2025-09-30EKO OSOKO BILKURAREN 8-2025 AKTA ONARTZEA.

Alkatea; Orain bai, plenoetan ohikoak diren puntuekin hasiko gara. Bigarren puntua azken plenoari dagokion akta izango litzateke. Aktaren inguruan zerbait? Ez badago ezer, onartu egingo dugu.

3. DEKRETUEN BERRI EMATEA 2025DEKR2281 DEKRETUTIK 2025DEKR2543 DEKRETURA.

Alkatea; Hirugarrena ere pleno guztietara ekartzen dugun berri-ematea da. 2.281 dekretu zenbakitik 2.543ra. Hauek guztiak, zerrendak etab. badituzue. Baten baten inguruan zalantzarik? Ez badago ezer, aurrera egingo dugu.

4. BERRI EMATEA. KONTU-HARTZAILEAREN TXOSTENA: URTEKO BIGARREN LAUHILEKOARI DAGOKION FINANTZA ETA AURREKONTUEN ALORREKO INFORMAZIOA.

Alkatea; Laugarren puntua berri-emate bat da. Kontu-hartzailearen txostena. Legeak hala eskatzen duen moduan, kontu-hartzaileak, aurrekontuari dagokionez, berri-emateak eman behar izaten ditu hiru hilero. Urriaren 23an egindako Antolakuntza Batzordean egin zuen nolabait ere aurrekontuaren exekuzioaren azterketa edo balorazio bat hirugarren hiruhileko honetan nola dagoen. Informazio guztia pasa zitzaizuen, dokumentu guztia ere ordezkari politiko guztien eskura dago irakurri eta xehetasun guztiekin begiratzeko. Aipatu, onartu genuen azken aurrekontutik hiru hilabeteko honetan ez dela aldaketarik gauzatu. Exekutatzen jarraitu dugu bere garaian onartu genuen aurrekontu hura eta balorazio hau edo berri-emate hau egiten da, nolabait ere, besteak beste 2012ko aurrekontu eta finantza iraunkortasun legeari jarraituz. Lege hark esaten duenari jarraituz. Hark esaten duena jarraituz abuztura arterako gure aurrekontuaren datuak ikusita, esan daiteke aurrekontu egonkortasunaren helburuak betetzen dituela Hernaniko Udalak eta finantza iraunkortasunari dagokionez ere, legeak markatzen dituen helburuak betetzen ditugula.

Egiten dena da 2025eko ordura arteko aurrekontuaren exekuzioaren maila nola den, horren berri ematen du kontu-hartzaileak, eta baita hemendik eta urte bukaerara arterako likidazioan, abendu bukaerara arteko likidazioan ze aurreikuspen egiten den. Eta, hemen bai ikusten da, aurretik ere noizbait aipatu izan dugu, 2025eko itxieraren aurreikuspenean aurreikusten dela gastu-arauaren helburua gainditu egingo dugula. Gastu-araua zer da? Agian gu hemen egunerokoan gaudenean eta nolabait ere ulertzen dugu zer den, baina erraz saiatuko naiz azaltzen, denok ulertzearren. Gastu-araua da bere garaian espainiar estatuan sortzen den lege bat, aurretik aipatu ditugun helburu finantzario horiek edo egonkortze horiek betetzen ez dituzten Udalei begira jarritakoak. Aurrekontu-egonkortasunik ez zutenak, diruz larri zebiltzan udalei begira, nolabait ere, beraien gastua murrizteko edo kontentzioa egiteko. Muga batzuk jartzen ditu, zenbat gastatu behar den.

Lege horrek indarrean dirau, udal guztientzat, baita, gure kasuan bezala, aurrekontu aldetik ondo gauden udalei ere eragiten digu. Honek zer esan nahi du? Gastatzeko muga batzuk jartzen dituela. Eta muga horiek gainditzen baldin baditugu, eta aurreikusten da 2025ean gainditu egingo dugula, hurrengo bi urteetako plan bat diseinatu behar dugu kontentzio-lan bat egiteko gastu horretan.

Honek ez gaitu sorpresaz harrapatzen. Hau aurten gerta zitekeela iazko urte bukaeran ere aurreikusten genuen. Kontratu batzuk berritu egin direlako, langileen hitzarmenak handitu egin direlako... eta honek ekarri du gastua handitzea eta legeak aipatzen duen muga horietatik gora geratzea.

Orain arte ez da hau aplikatu behar izan Araba, Bizkaia, Gipuzkoan eta Nafarroan bazegoelako salbuespen bat, non zenbait egoeratan arau hau ez aplikatzea baimentzen zen; baina sententzia bat egon zen eta horren ondorioz, guri dagokigunez Gipuzkoan salbuespen hori aplikatzeari utzi egin zaio. Orduan, udal guztiak nolabait errespetatu behar dugu hau. Eta, seguraski, udal denak ez bagara ere, gehienak egongo gara egoera honetan.

Beraz, hau da: aurreikuspen bat egiten da, gastua legeak aipatzen zuen portzentajea gainditu egingo dugula eta, orduan, datozen bi urteetarako plan bat egin behar dugu gastu hori finkatzen duen heinean eta horretara mugatu behar dugu.

Bestetik, eta gure aurrekontuaren egonkortasunaren eta ongizatearen, nolabait erakusle ere bada, ordainketa hornitzaileei ere legeek esaten duten epean egiteko altxortegi nahikoa badagoela, gaitasuna badagoela eta legeak esaten duen 30 eguneko epe horietan ordainketa guztiak egiten ditugula.

Saiatu naiz hau horrela argi azaltzen. Ez dakit zalantzarik, komentariorik, zerbait ba ote dagoen. Hau ez da bozkatzeko kontu bat, hau kontu-hartzaileak egiten duen berri-emate bat da, denak informatuta egon gaitezen.

UDALBATZAN EGINDAKO BERRI EMATEA

Gipuzkoako toki erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 64 artikuluak, eta Aurrekontua Gauzatzeko Arauak 19. artikuluan, xedatzen duten moduan, igarotako epealdiari dagokion finantza eta aurrekontuen arloko informazioaren berri ematen da.

BAT. 2025-3 hiruhileko aurrekontuaren gauzatzea eta 2025 urteko aurreikuspena.

Udal taldeei eta Osoko Bilkurari, aurrekontu exekuzioari buruzko datuak, aurrekontu kapitulu eta partida xehetasunarekin. Dokumentazioa:

- Kapituluaren araberako laburpena, eta urte bukaera bitarteko aurreikuspena.
- Partida xehetasuna: ikus excel taula K karpetan.

BI. Aurrekontu aldaketak.
Epealdi honetan ez da izan aurrekontu aldaketarik.

HIRU. 2/2012 Aurrekontu eta Finantza iraunkortasun legeak ezarritako helburuen betekizunari buruzko datu eguneratuak jakinarazten ditut: Aurrekontu egonkortasuna, Finantza iraunkortasuna eta gastu araua. Dokumentazioa: Kontuhartzailearen ziurtagiria.

2025 abuztua bitarteko aurrekontu exekuzio datuak oinarri hartuta, Toki entitate honek betetzen du aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren arloetan ezarritako helburuak eta gastu araua. Dena den, 2025eko likidazio aurreikuspena kontuan hartuta, gastu araua ez betetzea aurreikusten da. Hori horrela gertatzen bada, toki entitate hau behartuta dago plan ekonomiko finantzarioa onartzera. Plan hori Udalbatzari aurkeztu beharko zaio likidazioaren espedientea onartzen denetik hasita hilabeteko epean. Plan horren baitan, 2026 eta 2027ko gastuak 2025eko gastu erreferentziaren muga ezingo du gainditu.

LAU. 2025 batez besteko ordainketa epea hornitzaileei.

Aurrekontu eta Finantza egonkortasunari buruzko 2/2012 legeak ezartzen ditu Sektore Publikoaren morositateari buruzko hainbat betekizun. Horien artean, 18,5 artikuluan

xedatzen du Kontu-hartzailetza organoak hornitzaileen ordainketa epeari buruzko jarraipena egingo duela, Sektore Publikoaren kontratazioari buruzko 3/2011 Errege Dekretuak xedatzen duen 30 eguneko ordainketa epea betetzen dela ziurtatzeko.

5. ZERBITZUAK ESKAINI EDO UDAL JARDUERAK BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOEN ORDENANTZAREN ALDAKETA.

Alkatea; Honekin, beraz, bosgarren puntura pasako gara. Ordenantza fiskaletan egin beharreko aldaketa bat da. Egia da ordenantza fiskalak pasa den hilabeteko plenoan ekarri genituela, baina ondoren aldaketa bat gauzatu edo aplikatu behar dugu. Ereñotzuko auzo udalak bi argitalpen baditu, bi liburu, eta liburu horiek salgai jartzeko helburua edo asmoa dauka, baina erakunde publiko batek sustatutako liburuak edo argitalpenak direnez, ordenantza fiskalen barruan joan behar du. aurreko testuan ez zen joan, orduan hona dakarkiguna da bi liburu egin ditugu, gaur-gaurkoz bi liburu dauzka Ereñotzuko auzo udalak argitaratuak; eta bi liburu horien prezio publikoa nolabait ere ezartzea da asmoa. Eta bien kasuan izango litzateke 20 euroko prezio publiko bat. Banatzaileen kasuan ohikoa den bezala, banatzaileei gehienez %50eko deskontua egiten zaie, beraiek banaketa lanak egiteko liburu hauekin. Aldaketa horixe izango litzateke. Ez dakit honen inguruan galderarik edo zerbait baden. Ez badago ezer, zuzenean bozketara pasako gara. Zerbitzuak eskaini edo udal jarduera burutzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoen ordenantzen aldaketaren aldeko botoak? Aho-batez onartzen da.

UDALBATZAK AHO BATEZ HARTUTAKO ERABAKIA

Ekonomia sailak aurkeztutako txostenak kontuan hartuta

Ereñotzuko Toki Entitate Txikiko idazkariak aurkeztutako txostena kontuan hartuta

Osoko bilkurak aho batez erabaki du

Lehena.- *Zerbitzuak eskaini edo udal jarduerak burutzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoen ordenantzaren eranskin berria sortu eta liburuen argitalpenagatik prezio publikoak ezartzea*

1. ZERBITZUAK ESKAINI EDO UDAL JARDUERAK BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOAK

5. LIBURUEN SALMENTA

	Prezioa
HERNANIKO UDALAREN LIBURUAK	
EREÑOTZUKO TOKI ENTITATEAREN LIBURUAK	
IÑISTORKETAN Iratzearen kultura Urumea bailara: paisaia, ondarea eta memoria	20€ (BEZ barne)
Gure faunari eta florari begira. Urumea bailarako natura eta ahozko ondara: euskara, ezagutza, sinismenak,...	20€ (BEZ barne)

Tarifak aplikatzeko arauak:

1. Banatzaile eta salmenta puntuei deskontua aplikatuko zaiela, gehienez %50 (%30+%20).

6. DONOSTIALDEKO ERREGIMEN BEREZIKO EREMUAN % 2,4KO IGOERA APLIKATZEA, AUTO-TAXI ZERBITZUETAKO KONTZEPTU GUZTIETAN.

Alkatea; Seigarren puntua taxi zerbitzuari dagokion puntua da. Hemen esan urtero ekartzen dugun puntua dela. Urte batetik bestera tarifak igotzeko proposamena da. Aipatu, orain dela urtebetetik hona Hernaniko taxi zerbitzua badagoela sartuta Donostialdeko erregimen bereziko eremuan sartuta. Honek esan nahi du 11 herri gaudela eremu berezian bateratuta, Donostia barne. 11 herri hauetan tarifa berdinak ditugu. Iaz egin genuen lanketa bat tarifa guztiak bateratzeko, eta orduz geroztik denetan tarifa berdinak ditugu eta igoerak ere 11 herrietan adostuta hartzen ditugu. Denek ere berdinak izateko.

Tarifei dagokionez, tarifa desberdinak dira lanegunetan egunez ematen direnak, asteburuetan egunez ematen direnak, edo gauez ematen direnak astean zehar eta asteburuetan. Guztira hiru tarifa dira. Hor dokumentuan pasa duguna da tarifa bakoitza ze preziotan geldituko litzatekeen. Eta hori izango litzateke gaur onartu, guk Euskadiko Prezioen Batzordera bidali behar dugu beraiek argitaratu ahal izateko, eta hala, 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera jada aplikagarriak izateko. Honen inguruan zerbait aipatzeko? %2'4ko igoera aplikatzea planteatzen da eta hau bada teknikariek egindako kalkulu bat; eta da proportzionala ustiapen kostuek izan duten igoerarekin. Prezio-analisi desindexatu bat egiten dute teknikariek, beraiei jarduerak suposatzen dizkien gastu desberdinak kontutan hartzen dituzte eta elementu bakoitzak ze igoera izan dituzten, horrekin egiten dute kalkulua. Eta, kasu honetan, kalkulua %2'4koa izan da igoera hori aplikatzeko. Honen inguruan ezer ez? Bozkatzera pasako gara, beraz. Donostialdeko erregimen bereziko eremuan %2'4ko igoera aplikatzearen aldeko botoak? Aho-batez onartzen da.

UDALBATZAK AHO BATEZ HARTUTAKO ERABAKIA

AURREKARIAK

2025eko urriaren 14an egindako bileran Donostialdeko Erregimen Bereziko Eremuko Jarraipen Batzordearen bileran erabakia hartu zen auto-taxien hiri-zerbitzuko tarifak berrikusteko, kontzeptu guztietan % 2,4ko igoera aplikatzeko 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera. Igoera hori proportzionala da ustiapen-kostuen igoera zenbatetsiarekin alderatuta.

Era berean, Euskadiko Prezioen Batzordetik, 2025-12069 sarrerako erregistro-zenbakiaren bitartez komunikatu dio Hernaniko Udalari Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu ahal izateko behar dituztela tarifa berriak bidaltzea 2025eko azaroaren 18a baino lehenago.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

I. Eskumena.

Euskadiko Prezioen Batzordeak Euskal Autonomia Erkidegoko udalek aurkeztutako tarifak onetsi behar dira auto-taxietako bidaiarien hiri barruko garraioaren zerbitzu publikoa emateko. Tarifa horiek aldatzeko proposamena onartzeko eskumena du Hernaniko Udalbatzak, organo horren ohiko osoko bilkuratan edo bilkura bereziotan, horrela xedatzen baitute Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22. eta 86. artikuluek.

II. Gaiaren azterketa.

Euskadiko Prezioen Batzordeari dagokio eskumen hori hala xedatuta baitago lege-xedapen hauetan: Euskadiko Prezioen Batzordea arautzen duen 2010eko otsailaren 2ko 35/2010 Dekretua *(2010eko otsailaren 16ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, 31. zk.)* eta baimendutako prezioak eta jakinarazitako prezioak berrikusteko prozedurari buruzko Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2010eko ekainaren 15eko Agindua *(2010eko uztailaren 6ko EHAA, 128. zk.)*.

II. Araubidea.

Auto-taxietako bidaiarien hiri barruko garraioaren zerbitzuari dagozkion tarifak prezioak kontrolatzeko araudiari loturik daude, «autonomia erkidegoko prezio baimenduak» modalitatean,

horrela ezartzen baitu ekainaren 7ko 7/1996 Errege Lege-Dekretuaren 16.4 artikuluak. Arau horren bidez, premiazko neurri fiskalei eta jarduera ekonomikoa sustatu eta liberalizatzeko neurriak ezarri ziren *(1996ko ekainaren 8ko Estatuko Aldizkari Ofiziala, 139. zk)*.

Kontuan hartu da Ogasun eta Antolaketa batzordeak 2025eko urriaren 23an aho batez emandako irizpena

Horiek horrela Hernaniko Udalbatzak aho batez erabaki du:

Lehenengoa. Onartzea igoeraren ondoriozko tarifa berriak eurotan. Tarifa horiek ondoren datozen zerrendan eta taulan jasotzen diren moduan geldituko dira:

1. tarifa. Gutxienekoa: 6,414243 euro.
1. tarifa. Egindako kilometroko: 0,900812 euro.
1. tarifa. Itxaronaldia orduko: 26,15302 euro.

2. tarifa. Gutxienekoa: 7,431496 euro.
2. tarifa. Egindako kilometroko: 1,397594. euro.
2. tarifa. Itxaronaldia orduko: 34,870693 euro.

5. tarifa. Gutxienekoa: 7,447148 euro.
5. tarifa. Egindako kilometroko: 1,446511 euro.
5. tarifa. Itxaronaldia orduko: 36,091084 euro.

2026. URTERAKO HIRI TARIFAREN PROPOSAMENA Eurotan adierazita (€)								
TARIFA 1			TARIFA 2			TARIFA 5		
Tarifa minimoa	Egindako kilometroa	Itxarote-ordua	Tarifa minimoa	Egindako kilometroa	Itxarote-ordua	Tarifa minimoa	Egindako kilometroa	Itxarote-ordua
6,414243	0,900812	26,15302	7,431496	1,397594	34,870693	7,447148	1,446511	36,091084

Hiri-zerbitzuotan, tarifa bakoitza aplikatuko da honako kasu hauetan:

1. tarifa: lanegunetan, 7:00etatik 22:00etara.

2. tarifa: larunbat, igande eta autonomia-erkidegoan eta toki-araudian jaieguntzat jotako egunetan, eta udal bakoitzak sektorearekin adostu eta gehitutako zenbait datetan, zein lagunetan 22:00etatik hurrengo eguneko 7:00ak arte, baldin eta 5. tarifa ez bada aplikatu behar.

5. tarifa: ostiral, larunbat eta jaiegun-bezperetako 22:00etatik larunbat, igande eta dagozkion jaiegunetako 07:00ak arte.

Gutxieneko tarifak 1,5 kilometroko ibilbidea edo 5 minutuko itxaronaldia hartzen du.

Bigarrena. Euskadiko Prezioen Batzordeari eta beste hamar udali komunikatzea, eta interesdunei jakinaraztea.

7. HERNANIKO PARKE, LORATEGI ETA BERDEGUNEEN MANTENTZE JASANGARRIRAKO, KONTSERBAZIOKO ETA HOBEKUNTZA ZERBITZUA KONTRATATZEKO LIZITAZIOA ABIAN JARTZEA.

Alkatea; Zazpigarren puntura pasako gara. Hernaniko parke, lorategi eta berdeguneen mantentze jasangarrirako, kontserbazioko eta hobekuntzarako zerbitzuaren kontratazioari dagokiona da eta Urkok azalduko digu.

Urko Lazkoz: Kaixo, arratsalde on.

Kontratu honi dagokionez, esan beharra dago atzerapenarekin bagabiltzala pixka bat. Egia esan, zerbitzu potolo bat bada herri-lanetatik eramaten dena. Esan beharra dago urte guzti hauetan lan handia egin dela plegu berri hau sortu ahal izateko eta kanpo teknikari aditu baten laguntza ere jaso dugu. Eraldaketa bat ere izan dugu lehengo plegutik, lehengo lan egiteko modutik: orain pixka bat landu da baita ere berdeguneak etab. jasangarriago izan zitezen, bai berdegune, bai intsektu, animalia eta naturarekiko. Eta lanketa guzti honetan baita ere plegua bere osotasunean ere ateratzen da bi urteko kontratu bat lizitazioko aukerarekin, hiru urte luzapenarekin. Kontratu honek sartu ditu, baita ere, aldi berean, urte guzti hauetan kontratu txikietan eta aparte landu diren hainbat gauza biltzen ditu eta horrela saiatu gara kontratu oso honetan sartzen dena bateratuta izateko eta ez gelditzea gero hainbat erosketa edo hainbat lan, esan bezala, kontratu txikien bidez egin behar izateko.

Aurrekontua ere potolo xamarra da, 1.000.800 euroz ari gara, bi urtetako kontratu batez ari gara, eta horixe.

Alkatea: Eskerrik asko, Urko. Honen inguruan zerbait?

Jaione Aristregi: Galderatxo bat, luzapenak zer izango dira urtez urte?

Urko Lazkoz: Bai, hori da, urtez urte. Bi ureko lizitazioa ateratzen da eta gero hiru urteko luzapena urte bat gehi bat, gehi bat.

Alkatea: Beste galderarik, zalantzarik edo komentariorik? Ez badago ezer gehiago, zuzenean bozkatzera pasako gara. Hernaniko parke, lorategi eta berdeguneen mantentze jasangarrirako, kontserbazioko eta hobekuntza zerbitzua kontratatzeko lizitazioa abian jartzearen aldeko botoak? Aho-batez onartu da.

UDALBATZAK AHO BATEZ HARTUTAKO ERABAKIA

Gaiaren azalpena:
Hernaniko parke, lorategi eta berdeguneen mantentze jasangarrirako, kontserbazioko eta hobekuntzako zerbitzua emateko kontratua esleitzeko espediente berriaren izapidetzeari ekin zaio.

Ikusi dira espedientea osatzen duten dokumentuak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko, azaroaren 8ko, 9/2017 Legearen 116. artikuluan jasotzen direnak. Lege beraren 117. artikuluan xedatutakoa kontuan izanda,
Kontuan hartu da Tokiko garapen batzordeak 2025eko urriaren 23an aho batez emandako irizpena

Horiek horrela Heraniko Udalbatzak aho batez erabaki du:

Lehena.- Onartzea Hernaniko parke, lorategi eta berdeguneen mantentze jasangarriko, kontserbazioko eta hobekuntzako zerbitzuak kontratatzeko ohiko prozedura ireki bidez egikarituko den kontratazio espedientea eta kontratu hori arautuko duen Plegu Administratibo Partikularra, eta erantsitako Baldintza Teknikoen Agiriak.

Bigarrena.- Onartzea gehienezko lizitazio prezioa izango dena, hau da, 1.538.121,84 €, gehi BEZ (% 21), 323.005,58 €, guztira, 1.861.127,44 €.
Gastua aurrekontuko honako partidaren kontura onartzea: 1 2310.227.99.171.00
Baimendu zenbakia: 2026ko aurrekontua.

Hirugarrena: Kontratu honen iragarkia Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean nahiz Kontratatzaile Profilean argitaratzea eta 30 egun naturaleko epea ematea proposamenak aurkezteko.

8. GUREAK BERDEAK SLUREN ERREKLAMAZIOARI ERANTZUNA HERNANIKO BERDEGUNE, PARKE, ZUHAITZ, LORATEGI ETA KONPOST-GUNEEN MANTENTZE-ZERBITZUARI DAGOKIONEZ.

Alkatea; Eta hurrengo puntuak badu zerikusia Urkok aipatu duenarekin eta aurreko zerbitzuarekin. Kasu honetan, orain arte eta kontratu berria martxan jarri arte behintzat, Gureak Berdeak S.L.U izan da lorategien mantentzearen zerbitzua eman duena eta berak erreklamazio bat egin zuen kontratu berria ateratzean izaten ari ginen atzerapen horien aurrean nolabaiteko erreklamazio bat egin zuen eta horren inguruan ere azalpena Urkok emango digu. Eta gero bozkatzera pasako gara.

Urko Lazkoz: Bai, hori da, esan bezala, Gureak Berdeak S.L.U urte guzti hauetan fede onez aritu da Hernaniko Udalarentzat lanean. Jakitun zen kontratua amaitu, luzapen bat onartu zela eta hori amaitu eta gero ez ginela gai izan lizitazio berria ateratzeko. Orain arte fede onez aritu da lanean, jarrera oso onarekin Udalarekin, esan beharra dago, eta inongo momentutan ez ditu bere funtzioak alde batera utzi eta ondo jokatu du herriarekiko. Egia dena da erreklamazio hau datorrela pixka bat baita ere 2021ean KPIaren igoerarengatik. Langileen soldatak dezente igo dira urte hauetan eta pixka bat bataz besteko kontu batzuk atera zituen eta horiek aurkeztu zituen. Bertako teknikariek ikusi zuten arrazoi zuela eta horregatik dakarkigu hona, dagokiona berari emateko.

Alkatea: Eskerrik asko, Urko. Honen inguruan galderarik, zerbait aipatzeko? Ez badago ezer, bozkatzera pasako gara zuzenean. Gureak Berdeak S.L.U-k egiten duen erreklamazio hori emandako erantzunaren aldeko botoak? Hau ere aho-batez onartzen da.

UDALBATZAK AHO BATEZ HARTUTAKO ERABAKIA

Aurrekariak

- 2017ko azaroaren 8an formalizatu zen Hernaniko berdegune, parke, zuhaitz, lorategi eta konpost-guneen mantenu zerbitzuaren kontratua (2017PRIR0011 espedientea) GUREAK BERDEA, SLU eta Hernaniko Udalaren artean. Kontratuaren iraupena 2 urtekoa zen, beste bi urtez luzagarria urtez urte eta prezioa 481.426,00 €/urteko (BEZ barne).
- Luzapen guztiak agortu ondoren, kontratua 2021eko urriaren 31n amaitu zen. 2021eko azaroaren 4an, Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki zuen kontratuaren aparteko luzapen bat egitea kontratu berria sinatu arte eta gehienez ere 9 hilabetez. 2021eko abenduan Udalak erabaki horren berri eman zion GUREAK BERDEA SLU enpresari.
- Erreklamazioaren xede den zerbitzua etenik gabe ematen jarraitu du enpresak gaur arte, kontratuaren indarraldia amaituta egon arren.
- GUREAK BERDEA SLU enpresak, aparteko luzapen horren amaiera datatik aurrera (2022ko uztailaren 31tik aurrera) emandako zerbitzuengatik konpentsazio ekonomiko bat aitortzeko eskaera aurkeztu du Udalean, tarte horretan kontraturik gabe zerbitzua ematen jarraitu duelako.
- 2025eko urriaren 20an Zerbitzu Publikoen Sailaren arduradunak eskaeraren inguruko txostena eman du. Balorazio zehatza eta arrazoiak aipatutako txostenean daude jasota, eta hauxe adierazten da:

— *Egia dela, Gureak Berdeak SLUk dioen bezala, 2022ko uztailaren 31tik aurrera zerbitzua ematen jarraitu dutela, kontratuz kanpo, 2017-2022 aldian eman zen baldintza beretan eta kontratua indarrean zegoenean fakturatzen zuten hileko kopuru bera fakturatzen jarraitu dutela.*
— *Ematen duten zerbitzua funtsezkoa dela, eta 2022-2025 epean zerbitzuaren kontratu berririk lizitatu ez izana, arrazoi ezberdinak zirela medio, ezin zaiola Gureak Berdeak SLUri egotzi, baizik eta Udalari.*
— *Enpresak lankidetza eta fede oneko jarrera izan duela hasieratik.*
— *Epe horretan langileen kostuak gorakada nabarmena izan zuela, bereziki 2021etik aurrera izandako KPIaren igoeren ondorioz. Bestalde, esan beharra dago 2023ko maiatzaren 16an GAOn Gureak Berdeak SLUren hitzarmen kolektibo berria argitaratu zela, eta hitzarmen berriak soldaten igoera nabarmena ekarri zuela, KPIaren gorakaden gainetik.*
— *Gureak Berdeak SLUk aurkeztutako kalte-ordain eskaeraren kalkuluak aztertu direla, eta eskatutako 150.482,88 € (BEZ gabe) honela banatzen direla (zerbitzuaren kostua – fakturatutakoa):*
    - *2022 --> 9.546,29 € (407.419,01 € - 397.872,72 €)*

- *2023 --> 31.546,92 € (429.419,64 € - 397.872,72 €)*
- *2024 --> 44.858,93 € (442.731,65 € - 397.872,72 €)*
- *2025 --> 60.797,27 € (458.669,99 € - 397.872,72 €)*
- *Bestelakoak --> 3.733,58 €*

— *Urtez urte eskatutako kopuru horien kalkulua bat datorrela urte horietan argitaratutako KPIaren urtez urteko igoerekin.*
— *Azkenik, erreferentzia gisa adierazi beharra dago, 2026-2030 urteetarako lizitatuko den zerbitzuaren kontratu berriaren kalkulu ekonomikoan, aipaturiko hitzarmen kolektibo berria aintzat hartuta egin dena, 2025eko prezioetan gaur egungo plantillaren kostua 425.552,26 € -tan estimatu dugula. Beraz, kontuan izanik kopuru horri aldakorra den absentismoa, esplotazio gastuak eta gastu orokorrak gehitu behar zaizkiola, adierazi dezakegu eskatzen dutena gure lizitazio-prezio berriaren kalkuluen azpitik dagoela eta, hortaz, arrazoitua dagoela.*

Oinarri juridikoak

- Bidegabeki aberastea

Arrazoirik gabe aberastearen printzipioa (edo bidegabeki aberastea) doktrinak eta jurisprudentziak onartzen dute ondare-oreka berrezartzeko bide bat dela, alde batek onura bat lortzen duenean beste baten kontura, baliozko justifikazio juridikorik gabe.

Printzipio hori elementu hauetan laburbiltzen da:

a) Aberastuaren ondarea ugaritzea edo handitzea, behin betiko ondoriak sortzen dituen edozein ondare-abantaila edo -esleipen dagoenean haren alde.

b) Erreklamatzen duenaren pobretzea, diruzkoa eta nabarmena, zentzurik zabalenean ulertuta eta betiere zuzenean pairatzen duenaren portaeratik ez badator.

d) Pobretzearen eta aberastearen arteko kausa-erlazioa, bata betearen ondorioa izan dadin. Edo, beste era batera esanda, aberastearen ondorioz pobretzea datorrela.

Kontzeptu horri dagokionez, hainbat Aholku Batzorde zentzu berean mintzatu dira: dute: 6/2022 txostena, uztailaren 28koa, Kataluniako Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearena, 2/2023 txostena, martxoaren 17koa, Andaluziako Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearena eta besteak beste Espainiar Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordea, 76/21 espedientearen barruan.

Era berean, Auzitegi Gorenak 4480/2023 epaian onartu du printzipio hori ordezko bide gisa erabil daitekeela baliozko kontraturik ez dagoenean, baina zerbitzua benetan ematen denean.

- Ex post kontratatzeko ezintasuna

Kontratu formalik ez dagoenez eta ohiko kontratupean emandako zerbitzuak ex post legeztatzeko ezintasun juridikoa dagoenez, ordaintzeko obligazioa onartzeko juridikoki balio duen bide bakarra bidegabeki aberastearen printzipioa da.

Espedientean dauden txostenak aztertu dira.

Kontuan hartu da Tokiko garapen batzordeak 2025ko urriaren 23an aho batez emandako irizpena

Horiek horrela Hernaniko Udalbatzak aho batez erabaki du:

Lehena.- GUREAK BERDEA SLU enpresak aurkeztutako erreklamazioa onartzea, 2022ko uztailaren 31tik aurrera Hernaniko berdegune, parke, zuhaitz, lorategi eta konpost-guneak mantentzeko zerbitzua ematearen ondorioz suertatu den arrazoirik gabeko aberasteagatik (bidegabeki aberastea).

Bigarrena.-Ondorioz, 150.482,99€-ko kalte-ordaina ordaintzea, bidegabeko aberasteagatik .
Ordainketa aurrekontuko honako partidaren kontura egingo da: .....

Hirugarrena.- Erabakia GUREAK BERDEA SLU enpresari jakinaraztea.

9. HIRIGINTZA ANTOLAMENDUAREN OSAGARRIA DEN ORDENANTZAREN ALDAKETA. HASIERAKO ONARPENA.

Alkatea; Bederatzigarren puntura pasako gara. Kasu honetan hirigintza antolamenduaren osagarriaren ordenantzaren aldaketari dagokio eta Ainarak azalduko digu.

Ainara Atorrasagasti: Kaixo, arratsalde on.

Berez, aldaketa hau gure Hirigintza Ordenantzaren puntu bat eguneratzeko aldaketa bat da. Konkretuki lokalek merkataritzatik haratago eduki ditzaketen erabilerak arautzeko puntua da egokitzen duguna. Batez ere, hasiera batean Eusko Jaurlaritzak onartutako dekretuari egokitzeko planteatu genuen aldaketa hau. Dekretu honek bizigarritasun baldintzak arautzen ditu herritarrentzako segurtasuna eta baldintza egokiak bermatzeko. Eta behin hasita gure araudia aldatzen, aprobetxatu dugu gure gaur egungo egoera gainbegiratzeko, ikusteko zein zen gaur egungo egoera eta, batez ere, zehazki bageneuzkalako lokal hauek etxebizitza bihurtzeko. Eta gure ordenantza pixka bat zentzu horretan zaharkituta ikusten genuelako. Baina bagenuen beti begirada bat merkataritzaren egoera eta merkataritzaren beharrak kontutan hartzea buruan. Beraz, lehenik eta behin azterketa bat egin genuen, ikusteko benetan zein zen gaur egungo errealitatea gure herrian. Eta, horrez gain, ikusteko benetan jaso genituen eskaerak zeintzuk ziren, hainbeste zirenez, nola uztartzen ziren. Behin azterketa horretan ikusi genuena zen gure mapa, zein bai eta zein ez arautzen zirenak, merezi zuela buelta bat ematea, lehen aleatorioki zegoelako jarrita neurri batean, eta orain beste modu batean planteatu da mapa hori. Eta uztartuta, baita ere, ze auzotan, batez ere, ikusi ditugun etxebizitza eskaerak eta zein modutan.

Egin duguna izan da: mapa hori eguneratu eta, horrez gain, baldintzatu ze etxebizitza eta ze modutan egin ahal izango diren aldaketa hauek. Batez ere dekretuarekin begiratuta, baina baita gure begirada batekin. Beste errealitate batzuk jaso ditugu baita ere. Ez bakarrik lokal hauek etxebizitza bihurtzeko, baizik eta batzuetan garaje konpartitu batzuk sortzeko ere. Hori re jaso dugu, baina baita nola egin ere arautu dugu, egiteko aukera dagoen kasuetarako. Egia da lan handia egin dugula auzoz auzo, lokalez lokal, ikusita zein den errealitatea, ahalik eta irtenbide egokiena topatzeko. Baina argi utzi nahi dudana da asmoa ez dela berez lokal hauek etxebizitza bihurtzeko sustatzea eta ezta jarduera komertzialak ordezkatzea ere. Guretzako, berez, merkataritza bizirik mantentzeko konpromisoa dagoelako. Baina, egia da, errealitate bat dela lokal asko urtetan eta urtetan jarduerarik gabe daudela ikusita eta dagoen etxebizitza premiarengatik, ikusten genuela zentzuzkoa buelta bat ematea honi. Batez ere, gainera, ikusita etxebizitza hauek tasatu bihurtzen direla. Hori gogoraraztea ere inportantea da.

Orduan, oso garrantzitsua zen pauso hau ematea baldin eta baldintza egokietan eta bizigarritasun arauak betetzen dituzten, etxebizitza duin batzuk sortzeko.

Eta hori da honen helburua.

Alkatea: Eskerrik asko, Ainara.

Honen inguruan zerbait aipatzeko?

Ricardo Crespo: Ez nuen hitz egiteko asmorik, baina azkenean hitz egitea erabaki dut. Zergatik? Izan ere, uste dut ondo egindako lana dela eta denon artean egin dugula lan. Ziurrenik ez da izan gutako inork nahi izan duen testua (EAJ eta beren taldeei erreferentzia), baina bai testu ona. Eta eskerrak eman nahi ditut lan horrengatik. Eskerrak eman nahi ditut lan hau aurrera ateratzeko

izan den pazientziagatik. Baina, aldi berean, osoko bilkura honetako lehen puntuarekin kontrajarri nahi dut. Oposizioarekin landu ez den protokoloa. Baina kasu honetan, ordenantza hau landu egin da. Denbora hartu dugu lan egiteko.

Bi auziak kontrajarri nahi nituen.

Mikel Gurutzeaga: Zentzu berdinean, baina komentatu nahi genuke elkarlana izan dela, denon ekarpenak sartu direla, ez da guk nahi genukeen guztia sartu, baina pozik gaude elkarlan honekin eta beste arloetan bezala, gauzak ondo egin direla.

Egia da, baita ere, ekimen edo aldaketa hau aspalditik eskatuta geneukala guk eta azkenean gauzatu da eta horren alde gaude. Gure bozka ere aldekoa izango da.

Alkatea: Eskerrik asko, bioi. Ainara, ez dakit zerbait esan nahi duzun.

Ainara Atorrasagasti: Bai egia da, lehen aipatu dut, lan handia egin dela auzoz auzo, lokalez lokal, esango nuke, zuekin gainbegiratu dugu kasu bakoitza eta bai, lanketa intentsua eta bai, pazientzia eduki behar izan dugu batzuetan ere.

Eskerrik asko.

Alkatea: Eta pazientzia handia daukagula beste lanketetan ere horrela egiteko. Esan nahi dut, aipatu delako eta askotan gure artean hitz egiten dugunean komentatzen dugu, askotan plenoan eta beste tokitan azpimarratzen direla desadostasunak eta eskertzen da horrelakoetan ere aitortzea eta Gobernu Taldearen partetik ere gonbidapena beste lanketa askotan ere modu honetan horrela lan egiteko. Gure partetik ere, seguraski akatsak denen aldetik izango dira, baina borondatea behintzat badago horretarako eta berriz ere gonbidapena mota honetako lanketak beste eremu batzuetan ere egiteko.

Bozketara pasako gara hortaz. Hirigintza antolamenduaren osagarriaren ordenantzaren aldeko botoak? Aho-batez onartzen da.

UDALBATZAK AHO BATEZ HARTUTAKO ERABAKIA

Ordenantza multzoaren I. Liburuan HIRUGARREN ALDAKETA onartzea proposatzen da. Ordenantza horretan aldatzen diren puntuak honako hauek dira:

1.- Lokal eta etxebizitza berrien gutxieneko azalera III.2-2.2 artikuluan, batez besteko tamainaren kontzeptua ezabatzen da etxebizitza bihurtu nahi diren lokalen kasurako.

2.- Aplikazio eremuaren aldaketa. Egungo Ordenantzaren Hirugarren Tituluko Bigarren Kapitulura (III.2) atxikitako Taula aldatu da.

3.- Lokalen segurtasun-baldintzak. Ordenantzaren arabera, segurtasunari dagokionez, aplikatzekoak dira "Eraikuntza Ordenantzak" Lehen Tituluko (I) I.2-9.1 eta I.2-9.2 artikuluetan jasotzen diren zehaztapenak. Bertan, I.2-9.2 artikuluko lehenengo puntuan xedatzen dira beheko-solairuan kokatutako etxebizitzen baoen baldintzak.

4.- Etxebizitza berrien salmenta- eta errenta-prezioa. proposatzen da birgaituko diren etxebizitza berrien gehieneko salmenta prezioa mugatzea erabilera-aldaketaren udal baimena erdiesteko unean eta etxebizitzaren jabetza eskualdatzeko unean indarrean dagoen araudian Jabetza osoko araubide autonomikoko etxebizitza tasatuentzat ezarritako erreferentziazko preziora.

5.- Etxebizitza-erabileraren baimenak dituen Hirigintza Kargak. III.2-4 Atala aldatzen da.

6.- III. Tituluari Kapitulu berri bat gehitu zaio etxebizitzarenak ez diren erabileretarako xedatutako behe solairuko lokaletan aparkaleku kolektibo erabilera nola ezarri behar den arautzeko.

39/2015 Legeak, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena 133 artikuluan arautzen du herritarren parte-hartzea lege eta erregelamendu mailako arauak egiteko prozedura. Horrela bere lehen atalean honako hau xedatzen da:

1. Lege- edo erregelamendu-proiektua edo -aurreproiektua egin aurretik, kontsulta publiko bat egingo da administrazio eskudunaren web-atariaren bidez, eta, bertan, etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarrienek honako hauei buruz duten iritzia jasoko da:

a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.

b) Araua onartzeko beharra eta egokitasuna.

c) Arauaren helburuak.

d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak.

Hernaniko udalak bere web-atarian irailaren 29an argitaratu zuen kontsulta publikoa egiteko dokumentazioa arestian aipatu atalei buruz iritzia jasotzeko.

Urriaren 20a arte egon da kontsulta publiko hori egiteko epea eta ez da iritzirik jaso.

Bestalde Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak , Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena, 49 artikuluan Tokiko ordenantzak onartzeko honako prozedura hau arautzen du:

a) Udalbatzak hasierako onarpena ematea.

b) Jendaurrean jartzea eta interesdunei entzunaldia ematea, gutxienez hogeita hamar egunez, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko.

c) Epearen barruan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizun guztiak ebaztea eta Udalbatzak behin betiko onartzea. Erreklamazio edo iradokizunik aurkezten ez bada, ordura arte behin-behinekoa zen erabakia behin betiko onartutzat joko da.

Kontuan hartu da Tokiko garapen batzordeak 2025ko urriaren 23an aho batez emandako irizpena

Horiek horrela Hernaniko Udalbatzak aho batez erabaki du:

BAT.- Udal Ordenantza multzoaren I. Liburuan hirugarren Aldaketari, arestian adierazitako edukiarekin,hasierako onarpena ematea.

BI.- Akordio hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko web orrialdean argitaratzea eta jendaurrean jartzea bi hilabetez. Interesdunei ere bi hilabeteko entzunaldia ematea.

10. HERNANIKO UDALAREN ETA AÑARBEKO UREN MANKOMUNITATEAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENAREN BIGARREN GEHIGARRIA ONARTZEA.

Alkatea; Hamargarren puntura pasako gara. Kasu honetan, Hernaniko Udalaren eta Añarbeko Uren Mankomunitatearen arteko lankidetza-hitzarmenaren bigarren gehigarria onartzea litzateke. Hemen pixka bat testuinguratzeko, 2021ean Hernaniko Udalak sinatu genuen lankidetza-hitzarmen bat Añarbe Mankomunitatearekin. Lankidetza horren helburua, nolabait, zen pixka bat legeek diotena txukuntzea eta da: goi-hornidura sistema mankomunitateari dagokio eta berari pasatzea goi-hornidurako sistemako hainbat azpiegitura, eta alderantziz;

behe-hornidurako sistemako hainbat azpiegitura mankomunitateak kudeatzen zituenak Udalari pasatzea. Eta hor lankidetza-hitzarmen honekin jada bakoitza gelditzen ginen, berez, legez, bakoitzak ditugun konpetentziak egiten.

Hor, aldaketa desberdinak egin dira, obra eta inbertsio batzuk ere hasi direlako eta zenbait tokitan aurreikusi ez ziren zailtasun batzuk edo aldaketa batzuk aurreikusi direlako. Horiek aplikatu izan ditugu eta orain beste aldaketa bat aplikatzera gatoz. Hemen, hitzarmen honetan, aipatzen dena da Añarbe Mankomunitatea bere sozietate publikoaren bitartez, Aguas del Añarbe S.A-ren bitartez, izango dela obra enpresa esleipendunari ordainketak egingo dizkiona eta, gero, udalei egingo dizkigula nolabait kobraketak. Hemen eskatzen duguna da nolabait ere udalak egin beharreko ekarpen ekonomiko hori 2026ra arte itxoin beharrean, ekarpen ekonomiko hori 2025ean egitea.

Hau zergatik? Zerikusia dauka aurrez aipatu dugun datorren urtera etor daitekeen gastu-arauaren kontentzio eta muga horrekin. Orduan, hau egin beharreko kontu bat da, aurten egiten baldin badugu ordainketa hau, datorren urtean beste inbertsioetarako aukera gehiago izango ditugu.

Ez dakit honen inguruan galderarik, azalpenik, zalantzarik edo zerbait badagoen aipatzeko. Ez? Bozketara pasako gara, orduan. Hernaniko Udalaren eta Añarbeko Uren Mankomunitatearen arteko lankidetza-hitzarmenaren bigarren gehigarria onartzearen aldeko botoak? Aho-batez onartuta gelditzen da hau ere.

UDALBATZAK AHO BATEZ HARTUTAKO ERABAKIA

Kontuan hartu da Tokiko garapen batzordeak 2025ko urriaren 23an aho batez emandako irizpena

Horiek horrela Hernaniko Udalbatzak aho batez erabaki du:

— Hernaniko Udalak goi ur-hornikuntzako toki sistemak mankomunitateari transferitzeko eta mankomunitateak behe-hornidura sareari dagozkion azpiegiturak udalari emateko, hernaniko udalaren eta añarbeko uren mankomunitatearen arteko lankidetza hitzarmenaren bigarren gehigarria onartzea

Hernaniko Udaleko alkatea den Xabier Lertxundi Asteasuinzarrak sina dezala hitzarmena.

11. HERNANIKO UDALAK HABEREKIN SINATU BEHARREKO HITZARMEN BERRIA.

Alkatea; Hamaikagarren puntua. Hernaniko Udalak HABErekin sinatu beharreko hitzarmen berriari dagokio eta Asierrek azalduko digu.

Asier Mingo: Arratsalde on.

Labur-labur, historiko txiki bat: 2023an sinatu genuen lehen aldiz HABE erakundearekin Udala laguntzaile izateko hitzarmena eta oraingo honetan berdinarekin natorkizue. A1, A2 eta C1 ikastaroetan 2025-2026 ikasturtean diru-laguntzak kudeatzeko eta izapidetzeko hitzarmen hori berritu egin behar dugu. Beraz, lankidetza-hitzarmen hori bideratzeko gaur hemen proposatzen duguna da Hernaniko Udalak HABErekin hitzarmen hori sinatzea.

Alkatea: Eskerrik asko, Asier.

Honen inguruan galderarik edo zerbait aipatzeko? Bozkatzera pasako gara, orduan. Hernaniko Udalak HABErekin sinatu beharreko hitzarmen berriaren aldeko botoak? Hau ere aho-batez onartuta.

UDALBATZAK AHO BATEZ HARTUTAKO ERABAKIA

2023ko irailaren 26ko Osoko Bilkurak Hernaniko Udalak HABEren erakunde laguntzailea izateko hitzarmena sinatzeko erabakia hartu zuen. Aipatutako hitzarmenean 2023-24 ikasturterako HABEk proposatutako dirulaguntzen prozedura eta baldintzak arautzen zituen.

Oraingo honetan HABEko zuzendariaren eta Hernaniko Udalaren arteko lankidetza-bidea ezartzea proposatzen da, A1, A2 eta C1 (16-18 urte) helburu-maila duten ikasleek ikastaroetan parte hartzeagatik, 2025-2026 ikasturtean jasoko dituzten dirulaguntzak kudeatu eta izapidetzeko.

Aurreko ikasturtetik alderatuta, aurtengo ikasturtean A2 maila diruz lagunduko du HABEk eta C1 mailako 16-18 urteko ikasleei matrikula-prezioaren zenbatekoa 0,20 eurotik 0,60 eurora aldatu da.

Hori bideratu ahal izateko, lankidetza-hitzarmena (deialdiko II eta III eranskinak) beteta aurkeztu beharko dizkio HABEri, Eusko Jaurlaritzako erregistro elektronikoaren bidez.

Kontuan hartu da Herritarrentzako zerbitzuen batzordeak 2025eko urriaren 09an aho batez emandako irizpena

Horiek horrela Osoko bilkurak **aho batez erabaki du:**

- Hernaniko Udalak HABErekin hitzarmen berria sinatzea.
- Hernaniko Udaleko alkatea den Xabier Lertxundi Asteasuinzarrak sina dezala hitzarmena.

12. EAJ-PNV ETA PSE-EE (PSOE)REN UDAL TALDE-POLITIKOEN MOZIOA/ADIERAZPENA: ELKARBIZITZAREN ALDE, ETA ERTZAINTZA ETA UDALTZAINGOEN DEFENTSAN.

Alkatea; Osoko bilkuraren azken zatira pasako gara. Mozioei dagokiena. Bi dauzkagu, bi mozio. Lehena EAJ-PNV eta PSE-EE udal taldeek aurkeztutako adierazpena da elkarbizitzaren alde eta Ertzaintza eta Udaltzaingoaren defentsan.

Mikel Gurutzeagak eta Maria Jesus Egidok irakurri dute mozioa.

(Mozioa).

Alkatea: Eskerrik asko. EAJk eta Euskal Sozialistak udal taldeek aurkeztutako mozioa denez, erronda irekiko dugu, baina beste orden batean. Elkarrekin-Podemosek zerbait esateko baldin badu, gero EH Bildura pasako gara eta erreplika gero, aurkeztu duzuen udal taldeek izateko.

Lourdes Lopez: Kaixo.

Osoko bilkurara ia gai berari buruzko bi mozio datoz, ikuspuntu desberdinekin. Eta biei erantzungo diegu.

Hasteko, esango dugu horrelako mozioek interes alderdikoiago batzuei erantzuten dietela eta gizartearen polarizazioa bilatzen dutela; eta gatazka sortzen dutela egon behar ez lukeen lekuetan. Polizia baten edo beste enplegatu publiko baten aurkako biolentzia kasu oro kondenatu behar dela uste badugu ere, edo ekainaren 23ko gauean Hernanin udalaren aurka gertatu zen bezala, zenbakitan ez dugu ikusten arazo larria denik. Bai, uste dugu urrats asko eman behar direla poliziak herritarrei ematen dien tratuari dagokionez. Ulertu behar da herritarrek erakundeekiko eta, bereziki, segurtasun-kidegoekiko duten atxikimendurik eza ez dela kasualitatea edo sektore jakin batzuek bultzatua soilik. Aitzitik, hobetu daitezkeen jokabideen ondorio dira. Eta, horretarako, polizia-eredua berrikusi behar da, gertutasunean, gardentasunean, proportzionaltasunean eta herritarrentzako zerbitzuan oinarritutako polizia bermatzeko.

Bi mozioetan abstenituko gara.

Itsaso Lekuona: EH Bildu argi dago ez dagoela aurkeztutako mozioarekin ados eta horregatik aurkeztu dugu jarraian aurkeztuko dugun mozioa.

Alkatea: Eskerrik asko, biei. Ez dakit mozioa aurkeztu duzuenok erantzunik eman nahi diozuen aipatutakoari.

Mikel Gurutzeaga: Bai, tira, zenbakiak ez direla larriak... Hori zure iritzia izango da. Nik uste dut ia astero ditugula horrelako gertakariak eta ez dira, hurrengo mozioan ere esaten den moduan, gehiegikeriaz dimentsionatzen edo politikoki aprobetxatzen. Nik uste dut zenbakiak oso nabarmenak direla, aurtengoak, behintzat. Eta gehiago esan duzu gertakaria baino, gehiago hitz egin duzu polizia ereduez. Horretaz ere hitz egin dezakegu, baina ez dagoena bertan behera utziz.

Alkatea: Eskerrik asko, Mikel. Ez dakit Euskal Sozialistak udal taldetik aipatu nahi den ezer. Ez? Mozioa bozkatzera pasako gara. Gero aipamena egin zaio hurrengo mozioari, baina lehengo hau bozkatuko dugu. EAJ-PNVk eta PSEk, kasu honetan, Euskal Sozialistak, udal taldeek aurkeztutako 'Elkarbizitzaren alde eta Ertzaintza eta Udaltzaingoaren defentsan' izenburua duen mozioaren aldeko botoak? EAJ eta Euskal Sozialistak udal taldeak. Kontrako botoak? EH Bildu udal taldearenak. Eta abstentzioak? Elkarrekin-Podemos udal taldearenak. Beraz, ez da mozioa onartzen.

Bozketaren emaitza

	Kopurua	Izen-abizenak
ALDE	8	1. Andoni Amonarraiz Gómez. 2. José Antonio Cuesta Solé. 3. Blanca Alberro Aranzasti. 4. Miryam Vazquez Vecino. 5. Mikel Gurutzeaga Zubillaga. 6. Ismael Ganchegui Gonzalez. 7. Ricardo Crespo Rubio. 8. María Jesús Ruiz Ochoa
KONTRA	11	1. Xabier Lertxundi Asteasuinzarra. 2. Itsaso Lekuona Legorburu. 3. Patxi Ibarguren Etxeberria. 4. Ainara Atorrasagasti Urizar. 5. Aitor Lukas Solano. 6. Asier Mingo Arruabarrena. 7. Amaia Miner Canflanca. 8. Aitor Huizi Izagirre. 9. Urko Lazkoz Fernandes. 10. Oier Agirresarobe Lizaso. 11. Miren Kistiñe Rodriguez Polaina.
ABSTENTZIOAK		1. Jaione Aristregui Cao. 2. Lurdes López Gorrotxategi.

13. EH BILDU UDAL-TALDE POLITIKOAREN MOZIOA: DEMOKRAZIAREN ALDE, ETA POLIZIA-EREDUA BERRIKUSTEAREN ALDEKO MOZIOA.

Alkatea; Eta honekin, bai, erreferentzia egin zaion bigarren moziora pasako gara. Kasu honetan EH Bildu udal taldeak aurkeztutako mozioa da. Demokraziaren alde eta polizia eredua berrikustearen aldeko mozioa. Itsasok irakurriko du.

Itsaso Lekuona:

(Mozioa).

Alkatea: Eskerrik asko, Itsaso. Erronda irekiko dugu. Ez dakit zerbait aipatzeko badagoen.

Mikel Gurutzeaga: Orokorrean, harritu egiten gaitu PSErekin batera gaur aurkeztu dugun antzeko gai bati buruzkoa den mozio honen izenburuak: 'demokraziaren alde eta polizia eredua berrikustearen aldeko mozioa' izatea. Eta, aldi berean, argudioetan EH Bilduk gizarteko beste arazo batzuk behar izatea mozio honi zentzua emateko. Hala nola, osasuna edota etxebizitza. EH

Bilduren mozio honen sarreran adierazten da, adibidez, ez datorrela bat jarduera modu horiekin. Gure ustez, oso larriak diren gertakari hauen kontrako jarrera oso modu arinean agertzen da. Bigarren paragrafoan, aldiz, ustez instrumentalizazio politikoaz hitz egiten denean, azkar asko erabiltzen da gaitzetsi hitza. A ze aldea!

Mozioaren puntuetan, aldiz, terminologia aldatzen da. Oraingoan bai, gaitzetsi erabiltzen da lehenengo kasuan eta erabat baztertzea bigarrenean. Esan dezakegu, behintzat, terminologia aldetik nahasia eta anbiguotasuna nabarmena dela. Mozioaren lehen puntuan instituzioez hitz egiten denean, euskal poliziaren erakundea barne al legoke baita ere? Bere eredua aldatzeko eskatzen denean bakarrik aipatzen da polizia hitza, inoiz ez hitzez edo fisikoki erasotzen denean. Badirudi, EH Bilduri ez zaiola gustatzen polizia hitza aipatzea, hura defendatzeko denean. Baina bai polizia eredu berri bat planteatzen denean.

Gainera, esaten diren gauza batzuk ez dira egiak. Eusko Jaurlaritzak edo Segurtasun Sailak ez dute inolaz ere kriminalizatzen kritika sozial edo politiko osoa edota bidezko protesta. Ez da bizikidetzaren aurkako erasoa dela polizia kidegoen jarduera kritikatzea edo salatzea ere. Eta, noski, ezta gertakari puntualak neurrigabeki dimentsionatzen direla gizarteak izan ditzakeen beste arloetako garrantzizko arazoak ezkutatzeko ere. Eta hemen esango nuke, benetan puntualak dira gertakari hauek? Guretzat ez.

Horregatik ez ditugu ulertzen mozioaren bigarren eta hirugarren puntuak. Kritika egiteko eskubidea gurean existitzen delako. Eta denok onartuta dugulako eta ez delako inolaz ere kriminalizatzen kritika. EH Bilduk mozio hau gizentzeko erabiltzen duen doako baieztapena da. Guk argi daukagu non dagoen muga, eta indarkeriaren eta irainen erabileran dago; herritarrengan, soilik, beldurra, tentsioa eta kalte ekonomikoak sortzen dituena. Gure ustez hauek ezin dira inolaz ere gutxietsi eta zuritu. Argudiatuz, gainera, interes politiko batengatik neurrigabeki dimentsionatzen direla. Bizikidetzak behar dituen arauak puskatzen edo errespetatzen ez direnean, ez dago ez bizikidetzarik ezta segurtasunik ere.

Orain, polizia eredura itzuliz, Segurtasun Sailburuak berak adierazi berri du medioetan, Segurtasun Foroa indarrean dagoela eta foro horretan hitz egin eta eztabaidatu daitekeela euskal poliziaren ereduaren inguruan.

Hasieran esan dugu, mozio honetan bide batez esatea, ezkutatu nahi dela, adibidez, Osakidetzaren gainbeheratzea, degenerazioa, funts-gabeko gehiegikeria iruditzen zaigu. Kontuan edukita, besteak beste, abian eta lanean dagoela alderdi guztiek osatzen duten Osasun Mahaia. Euskal gizarteak gaur egun dituen eta mozioan aipatzen diren arazo guzti-guztiak dira garrantzitsuak. Hala nola, osasuna, etxebizitza, zerbitzu sozialak eta abar. Ados honekin, eta gure arteko desberdintasunak direnak direla ere, den-denak konponbidean jarri behar dira; bai Legebiltzarrean, baita hemen, Udalean ere. Baina mozioaren bosgarren puntuan eskatzea indar politiko guztiei egiturazko arazoetan zentratzea, indarkeriaren erabilera edota segurtasun arazo bezala baztertuz, oso desegokia iruditzen zaigu.

EAJ-PNVrentzat arazo guzti-guztiak aztertu, eztabaidatu eta konpondu behar ditugu dauzkagun erakundeetan; elkarlanean. Baita gizartearen beraren baitan ere. EH Bildurekin dugun alde ugarietako bat da guretzat indarkeria, segurtasuna eta bizikidetza euskal gizartearen egiturazko arazoa dela oraindik ere. Eta ahal den azkarren betirako konpondu beharrekoa, gizartearen aniztasuna beti errespetatuz.

Honen guztiaren ondorioz, gure taldearen bozka kontrakoa izango da.

Alkatea: Eskerrik asko, Mikel. Itsaso?

Itsaso Lekuona: Tira, gauza asko esan dituzue, baina besteak beste, hasteko aipatu duzu guk sartu behar izan ditugula edo aipatu behar izan ditugula bestelako gai batzuk mozioa justifikatzeko. Eta ez, esaten ari garena da zuek ari zaretela erabiltzen mozio hau eta gai hau ekartzen duzuela edo moziora eramaten duzuela gai hau, bestelako arazo horiek ezkutatzeko. Hori da guk esaten duguna. Eta kriminalizatzen dela kritika oro poliziari? Bai, kriminalizatzen da. Fokua askoz gehiago jartzen delako kritika horietan, kritika horiek eragin dituzten gertakarietan baino. Ez dituzte hainbeste portada eramaten gertakari horiek. Gero polizia hitza bera gustatzen zaigun

edo ez, ez dakit, ez da polizia hitza arazoa; kontua da bai polizia eredua dela arazoa guretzat. Polizia eredu hau da gustatzen ez zaiguna. Zuek diozue badaudela foroak eta polizia ereduaz hitz egiteko aukera dagoela, baina aldi berean, zuen mozioan esaten duzue eredugarria dela. Ez dakit non den eredu, baina eredugarria dela diozue. Guretzat ez da eredugarria eta horregatik planteatzen dugu eredu aldaketa bat.

Eta, azkenik esan, segurtasunaren gaia guretzat ere oso garrantzitsua dela, baina segurtasuna ez dela polizia segurtasuna bakarrik; segurtasunaren gaia da etxebizitza bat eskuratzeko segurtasuna, gaixo bazaude artatua izateko segurtasuna, segurtasun ekonomikoa... bai? Segurtasuna askoz zabalagoa da. Beraz, esan bezala, gu segurtasunaz hitz egiteko prest eta, batez ere, polizia ereduaz eztabaidatzeko prest.

Alkatea: Eskerrik asko, Itsaso. Ez dakit bigarren erronda bat beharrezkoa den. Ez? Bozkatzera pasako gara, orduan. EH Bildu udal taldeak aurkeztutako mozioa demokraziaren alde eta polizia eredua berrikustearen aldeko mozioaren aldeko botoak? EH Bildu udal taldearenak. Kontrakoak? EAJ eta Euskal Sozialistak udal taldeenak. Eta abstentzioak? Elkarrekin-Podemos udal taldearenak. Hortaz, mozioa onartu egiten da.

Bozketaren emaitza

	Kopurua	Izen-abizenak
ALDE	11	1. Xabier Lertxundi Asteasuinzarra. 2. Itsaso Lekuona Legorburu. 3. Patxi Ibarguren Etxeberria. 4. Ainara Atorrasagasti Urizar. 5. Aitor Lukas Solano. 6. Asier Mingo Arruabarrena. 7. Amaia Miner Canflanca. 8. Aitor Huizi Izagirre. 9. Urko Lazkoz Fernandes. 10. Oier Agirresarobe Lizaso. 11. Miren Kistiñe Rodriguez Polaina.
KONTRA	8	1. Andoni Amonarraiz Gómez. 2. José Antonio Cuesta Solé. 3. Blanca Alberro Aranzasti. 4. Miryam Vazquez Vecino. 5. Mikel Gurutzeaga Zubillaga. 6. Ismael Ganchegui Gonzalez. 7. Ricardo Crespo Rubio. 8. María Jesús Ruiz Ochoa
ABSTENTZIOAK		1. Jaione Aristregui Cao. 2. Lurdes López Gorrotxategi.

HERNANIKO OSOKO BILKURAK GEHIENGOZ ONARTUTAKO MOZIOA

Azken asteotan, Euskal Herriko hainbat tokitan zenbait erakunde eta ordezkari publikoen aurkako hainbat gertaera eta adierazpen izan dira, adierazpen askatasunaren eta espazio publikoaren errespetuaren muga onargarriak gainditu dituztenak Udal hau ez dator bat jarduteko modu horiekin, eta uste du modu egokian baztertu behar direla, axolagabekeria eta gehiegizko jardun interesatua saihestuz.

Ildo horretan, Udal honek gaitzetsi egiten du gertakari horien instrumentalizazio politikoa, kritika sozial eta politiko osoa kriminalizatzeko, bai eta bidezko protesta ere. Logika bat inposatu nahi da, non indar polizialekiko eta horiek zuzentzen dituztenekiko ezinegon edo zalantza adierazpen oro eraso onartezintzat interpretatzen den automatikoki, eta hori printzipio demokratikoen aurkakoa da.

Polizia-kidegoen jarduera kritikatzea, haien funtzionamendu-eredua zalantzan jartzea edo abusu-gertakariak salatzea ez da bizikidetzaren aurkako erasoa. Bizikidetzaren aurka egiten duena disentsorako espazio oro ixtea da, erakundeak kritikaren aurrean blindatzea eta erakundeen gaitzespenaren balioa hutsaltzea.

Gertakari horiek neurrigabeki dimentsionatzen diren bitartean, herritarren bizi-kalitateari eragiten dioten sakoneko eztabaidak isilarazten dira: Osakidetzaren endekatzea, etxebizitza-larrialdia, zaintza-krisia edo desproportzionatutzat jotako polizia-interbentzioekiko kezka sozial gero eta handiagoa.

Arkautiko Akademiako zuzendariak, bere taldearekin batera, dimisioa eman berri du, barne-erresistentziekin talka egin ondoren. Horrek erakusten du sistemak egiturazko berrikuspena behar duela.

Horregatik guztiagatik, Hernaniko Udaleko osoko bilkurak, GEHIENGOZ adierazten du:

1. Erakundeekiko errespetuaren edo adierazpen-askatasunaren bidezko erabileraren mugak gainditzen dituen jarduera oro gaitzestea.

2. Kritika politiko eta sozial legitimoa eta herritarren protesta kriminalizatzeko, izaera horretako gertaera puntualak erabiltzeko saiakera erabat baztertzea.

3. Berrestea kritikarako eskubidea, baita polizia-indarrekiko ere, edozein demokrazia osasungarriren muinaren parte dela, eta ezin dela murriztu edo deslegitimatu.

4. Eusko Jaurlaritzari eskatzea polizia-eredua sakon berrikusteko hausnarketa eta herri prozesua abiatu dezala, gardentasuna, kontrol demokratikoa, proportzionaltasuna eta zerbitzu publikoa bermatzeko.

5. Indar politiko guztiei dei egitea eztabaida instituzionala herritarrei eragiten dieten egiturazko arazoetan zentratzera, hala nola, osasun publikoa, etxebizitza, zainketak, lan-eskubideak eta polizia-eredua.

14. ESKARIAK ETA GALDERAK.

Alkatea,. Eta, honekin bai, osoko bilkura honen azken puntura pasako gara. Eskari eta galderen puntura. Ez dakit eskari eta galderarik badagoen. Talde politikoetatik ez. Ez dakit publikotik badagoen eskaera eta galderarik.

Juani (Lizeagako Gibelalde auzo elkarteko ordezkaria): Kaixo.

Guk galdetu nahi genuke nola dagoen gure proiektua. Ez dakigu ezer eta jakin nahiko genuke zerbait.

Alkatea: Ados, eskerrik asko, Juani.

Proiektua pentsatzen dut Lizeagako hoditeriaren proiektua dela. Ur-hoditeria berritzeko proiektua, ezta? Bere garaian zuekin hitz egin eta landu duguna.

Hemen aipatu 2025eko uztail honetan publikatu genuela lizitazioa. Hor epe bat ireki zen hainbat enpresa aurkezteko, baina hutsik gelditu da. Hau da, inongo enpresek ez dute bere proposamena aurkeztu. Egia da mota honetako obretan epealdiak izaten dira, zoritxarrez, nahiko ohiko bihurtzen ari dela zenbait obra motetan enpresarik ez aurkeztea. Orduan, ez da inor aurkeztu, legeak ematen dizkigun aukerak desberdinak dira eta hurrengo pausoari deitzen zaio prozedura negoziatu bat. Alegia, guk lehenengo pausoa baldin bada publiko egitea eta enpresak aurkeztea, hor inor aurkeztu ez bada guk aukera daukagu baldintza berdinetan enpresei deitzea eta enpresak agian lehiaketaz konturatu ez diren enpresak etab., deitu eta beraiekin negoziatzeko. Negoziatu, beti ere, baldintza berdinetan. Eta prozesu horretan gaude. Ze hor lortuko bagenu, azkartu egingo baikenuke. Zerbitzu publikoak sailetik ari dira enpresa desberdinekin, badakigu enpresa desberdinak kalkulu desberdinak egiten ari direla, hemen ari gara hitz egiten BEZ barne

528.000 euroko kontratu batez. Orduan, hor enpresak ari dira kalkulu desberdinak egiten eta, pentsatzen dugu, aste honetan edo datorrenean erantzunen bat izango dugula. Hor ondo joaten baldin bada, enpresaren batek onartuko luke eta prozedura administratibo batekin kontratua sinatu ahal izango genuke eta obrarekin hasi; eta negoziatuan inongo enpresak proposamenik aurkezten ez badu, berriz ere hasieratik hasi beharko genuke lehiaketarekin. Orduan, ari garena da saiatzen bigarren pauso horretan, eta hor denbora eskaintzen, bigarren pauso honetan enpresak aurkeztu daitezen.

Beraz, noiz izan daitekeen? Ba ez dakigu. Ezin dizut aurreratu noiz izan daitekeen. Faktore desberdinak daudelako. Gure nahia lehenbailehen. Nahiko genuke bihar bertan enpresa batek esatea kalkuluak egin dituela eta bera sartuko dela proiektu horretan. Baina, bitartean, ez ezazue itxaron plenora. Gure arteko harremana, Udalarekin harremana badago. Jarri genuen, baita ere, partaidetza teknikaria auzo elkarteekin harremanetan dagoena, konstante zuekin, beraz, deitu berari edo zinegotziari lasai; plenora arte itxoin gabe. Dena den, berririk daukagunean adieraziko dizuegu. Baina hori da, martxan dagoela, bakarrik itxaron egin behar dugula enpresek zer esaten duten.

Juani (Lizeagako Gibelalde auzo elkarteko ordezkaria): Oso luzea egiten ari da ezer jakin gabe. Ez da normala. Informazio pixka bat, esatea itxaroten ari gara, edo horrelako zerbait. Noski, guk badakigu zerbait egin behar dugula, baina jakin, behintzat.

Urko Lazkoz: Kaixo, Juani.

Bileran nik ere parte hartu nuen eta egia da konpromisoa hartu genuela hori burutzeko. Egia da bitarte honetan ez dugula harremanik eduki, baina lan hauek luze jotzen dute, benetan. Azkenean eskatzen duelako proiektu bat egitea, proiektu hori egindakoan gero plegu tekniko eta administratibo batzuk atera behar dira, horrek denak prozesu luze bat darama. Bitartean ere, bestela hainbat lan sartzen dira, non gelditu egiten diren lan horiek, berriz ere hartzen dira... Arrazoi duzu, agian adierazi behar zitzaizuela. Nik uste dut garrantzitsua dela adieraztea proiektua eginda dagoela, proiektua jada lizitaziora aterata dagoela, zoritxarrez hutsik gelditu baldin bada ere; ea orain zortea daukagun eta enpresaren batek heltzen dion proposamen honi, eta baita ere esan beharra dago dirua ere jasota dagoela plan hori burutzeko. Orduan, hori da garrantzitsuena. Puntu garrantzitsuenak eginda daude: proiektua eginda dago, hori burutzeko dirua jasota dago... Behar duguna da enpresa bat. Enpresa bat proiektua egin nahi duena. Horretan ari gara, oztopo hori lantzen. Baina Xabik esan duen bezala, gertatzen ari zaigu hainbat proiektutan, hainbat lanetan. Gaur egun lan asko dago eta enpresak lanez gainezka daude. Orduan, eskulana falta dela-eta edo hainbat arrazoirengatik, ez dira aurkezten horrelako obrak egiteko.

Ea zortea daukagun eta ez badago, honek ekarriko luke berriz ere pleguak berrikustea, aldaketa batzuk egitea eta berriz ere lizitazio berri bat ateratzea; honek ekartzen duen epe luzaketarekin. Plegu teknikoak aldatu beharko baitira, plegu administratiboak ere bai, berriz lizitazioa atera behar da, lizitazioa ateratzean epe batzuk ematen dira enpresak aurkezteko, hilabete-hiru hilabeteko tarteak izan ohi dira... Esan nahi dut, zoritxarrez, prozesua luzea izaten da. Baina nik uste dut konpromisoa hartu genuela bilera horretan egingo genuela, auzo elkartearen nahia bazela ur-hoditeria berritzea eta guk konpromisoa hartu genuen; beraz, hori martxan dago. Agian barkamena eskatu, tarte guzti honetan ez dugulako ezer adierazi. Arrazoi duzu. Baina jakin martxan dagoela.

Alkatea: Bai, eta esan zerbitzu publikoetako arduraduna buru-belarri dagoela horretan, ahalik eta denbora gutxiena eta prozesuaren pauso honetan egin ahal izateko; gehiago ez luzatzeko. Baina, esan bezala, berriak ditugunean adieraziko dizuegu.

Ez dakit besterik badagoen... Ez?

Nik gauzatxo batekin bukatu nahi nuke. Lehen aipatu da mozioen debate honetan bizi kalitatea, ongizatea eta egiturazko beharrena edo dauden egiturazko kezkena... Zaintza krisiaz hitz egin da eta gogorarazi nahi dut Zaintzaldian gaudela, Hernanin astebete zaintza etxetik eta partikular izatetik publikora, kalera eta komunitarioa izateko pausoa eta ekimen desberdinak daudela martxan. Tartean auzo zain izatearena. Hemen batzuk izena eman dugu (eskumuturrekoa

erakutsi du) eta gonbidapena luzatzen dizuet izena eman eta aste honetan, behintzat, gure aletxoa jartzea zainketen lan hau guztia komunitarioa izan dadin eta publiko eta komunitario bihurtzeko.

Eskerrik asko eta datorren hilera arte.

Hernanin 2025eko urriaren 28an

Idatziz gera dadin eta ondorioak izan ditzan egin dut ziurtagiri hau, alkatearen aginduz eta bere oniritziarekin

O.E

HERNANIKO ALKATEA

Ziurtagiri hau elektronikoki sinatuta dago: osotasuna eta egiazkotasuna,
QR kodearen bidez edo azpiko egoitza elektronikoaren bidez egiazta dezakezu.